

B

BARREN

TOKIKOM

Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren



Elgoibarko Izarra

txapelketak

ODOL EMAILEAK

Sanlo

PALA

Izarra

SANLO

2015-2016

GIZARTE EHINTZA

Alcorta

FORGING GROUP

Gust Atuko jatzu!!

MH

MM
Meka

EA

EA

EA



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.eus

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Webgunea: www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiari lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloe Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



ZOZOAK BELEARI



**“Gure eskola zuena da!
Gure ilusioa zuengan dago!”**



Iritsi zaigu eguna! Horrenbeste ilusio, beste horrenbeste lan, eta batez ere, elkarlan. Bidea polita izan da, eta horrelakoxea izango da eguna ere. Eskerrik asko gurekin lanean aritu zareten guztioi; ezin izenak aipatzen hasi, gehiegi zaretelako eta zutabeen lekua faltako litzaigukelako, baina badakizue zeintzuk zareten. Mila esker guztioi, bihotz-bihotzez.

Elgoibarko Herri Eskola altxor ederra da guretzat, eta jai hau antolatzearen helburua altxor hau plazaratzea izan da. Hainbat ekintza egin ditugu ikasturte honetan, eta igandeko eguna mimo handiz antolatu dugu. Ziur denbora tarte honetan gaizki egindakoak ere izan direla, beraz, barkatu gure hanka-sartzeak. Zin dagizuegu ilusioz beteriko lan boluntarioa kilotan neurtuko balitz, pisu guztiak apurtuko genituzkela; eskerrik gozoenak guztioi.

Erkarlanaren emaitza iristear dago. Ezin ahaztu urte luzetan gure eskolan lanean aritu diren irakasle, langile, guraso eta ikasleak. Aurten hemen gaudenoi landarearen loratzea bizitzea suertatu zaigu, beste batzuk gure aurretik landarearen lurra gozatu zituztelako eta tentu handiz landareari indartsu hezten lagundu ziotelako. Haien lanaren emaitzak badatoz, sentitzen ditugu, eta oraindik ere bizitzeko dauzkagunak ez dira gutxietekoak izango!

Gure txanda iristerako, hasiak gara hurrengo urtean pentsatzen. Lekukoa nork hartuko duen jakiteak are ilusio handiagoa eragin digu Herri Eskolako, Iparraldeko emango diegulako lekukoa; biba zuek! Hunkigarria da guretzat lekukoa zuei ematea; hemen izango gaituzue bidelagun, behar duzuen guztirako. Gure eskola zuena da! Gure ilusioa zuengan dago!

**“Elkarrekin egingo dugu
Euskal Herri euskalduna!”**

Eskerrik asko, Elgoibarko lagunok!

Aspaldiko desioa egi bihurtu da. Urteak daramatzagu Euskal Eskola Publikoaren jai Iparraldean ospatzearekin amesten eta 2016ko ekainaren 5ean gure ametsa egi bihurtuko da, Hendaian ospatuko baitugu gure jaiak.

Egia esan erronka honek beldurtu egiten gaitu, baina jakin badakigu Hegoaldeko guraso eta ikastetxeen laguntza izango dugula, urte guzti hauetan izan dugun bezala. Hasiak gara ere lelo eta irudiari bueltaka. Laster ezagutuko dituzue!

Kontatu nahi dizuegu gaur egun bost ikastetxe publiko ditugula Hendaian, eta horietatik lauk eskaintzen dutela euskara-frantsesa irakaskuntza elebiduna.

Erran behar dizuegu ere Ikas-bi gurasoen elkartean 25 urtetik gora daramatzagula Ipar Euskal Herriko eskola publikoak euskalduntzen, bai gurasoak euskararen abantailaz konbentzitzen eta baita behar ditugun lanpostuak exijitzen ere Hezkunde Nazionalari. Kontuan izan behar da Ipar Euskal Herriko ikasleen %70 sare publikoan daudela. Lan eskerga horri esker gehien euskalduntzen dugun sarea gara Ipar Euskal Herrian, 101 eskola elebidunekin. Gainera, murgiltze ereduaren ereduaren ematen hasiak gara sei ikastetxetan.

Lanean jarraitu behar dugu. Eskola publikoa klabea da haur eta gazteak euskalduntuz Ipar Euskal Herrian euskarak biziraun dezan. Horretarako zuen laguntza behar dugu, Hegoaldeko guraso eta ikastetxeari. Elkarrekin egingo dugu Euskal Herri euskalduna!





AUZOLANEAN BOLUNTARIO

Iritsi da eguna. Domekan izango da Euskal Eskola Publikoaren jaia, eta dena prest dago eguna behar den bezala ospatzeko. Prestaketa lan horiek ez dira errazak izan, eta boluntario talde batek urte osoan zehar jardun du lanean. Ez dira gutxi izan egin beharreko lanak, eta buru-belarri aritu dira han eta hemen ekinean. Aurrelanak amaitu dira, baina domekan bertan ere gogotik egin beharko dute lan. Gune bakoitzak bere arduradunak izango ditu, aparkatzeko guneak zainduko dituzte beste batzuek, herri bazkaria zerbitzatu beharko dute besteek... Eginbeharreko guztia aurrera eramateko 250 bat lagun arituko dira lanean domekan. Jaiaren antolakuntzan boluntario aritu diren guzti horien bi ordezkari batu ditugu: Mari Isabel Etxeberria Jata erlearen jostuna, eta Emilio Fernandez, domekan lanean jardungo duenetako bat.



Emilio Fernandez



Zergatik eman duzu domekan lan egiteko izena?

Herri Eskolako guraso garen aldetik, uste dut oso garrantzitsua dela ahal den heinean eskolan laguntzea. Batzuek urte guztian zehar egiten dute lan, eta beste batzuk, denborarik ez daukagulako edo horren ekintzaileak ez garelako, gutxiago mugitzen gara. Baina igandekoa egun garrantzitsua izango da, eta egun horretan behintzat lagundu egin behar dugula iruditzen zait. Gure lana Herri Eskola herrira eta herritarrengana zabaltzea izango da, bereziki.

Nola biziko duzu Euskal Eskola Publikoaren jaia?

Azken bi urteetan joan izan gara Euskal Eskola Publikoaren jaira. Iaz Balmasedan izan zen, eta han hartu zuten lekukoa Elgoibarko Herri Eskolakoek, eta orain dela bi urte Murgian izan zen. Jai hau ez da Ikastolen aldeko Kilometroak jaia bezalakoa; jende gutxiago mugitzen du, baina jendea etorriko da. Gu umeekin irtengo gara goizean goizetik, eta egunaz gozatuko dugu. Lan apur bat egitea tokatuko zaigu, baina txandak egin ditugu, eta familiarekin festaz gozatzeko aukera ere izango dugu.

Zer iruditzen zaizu Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren ospatzea?

Nik uste dut lorpen handia izan dela. Hasieran erokeri bat izango zela

ematen zuen, baina azkenean, ondo irtengo da. Lan handia egin da horretarako. Ardura gehiena lantalde murriztu batek hartu du, eta esan behar da lan gogorra egin dutela. Horrelako jai bat gure herrian egitea oso garrantzitsua da, Herri Eskola benetan zer den ezagutzera emateko. Herri Eskolak herri honetan fama txarra izan du beti, eta hori ezjakintasunagatik da; jendeak ez du benetan ezagutzen Herri Eskola nolakoa den, eta hori ezagutzera eman nahi dugu. Zeregin horretan ekintza asko antolatu ditugu urtean zehar, eta igandekoa jaia izango da azken festa.

Zu ikasle izan zinen, eta orain guraso zara. Nola aldatu da ikastetxea ordutik?

Ume zarenean ez zara gauza askorekin konturatzen, baina baietz esango nuke, egoera asko aldatu dela. Nik Pedro Muguruzan ikasi nuen, publikoan. Garai hartan lau ikastetxe zeuden Elgoibarren: Ikastola, Pedro Muguruza, Aita Agirre eta Pilar, eta gu izan gara beti ikastetxeen artean anaia pobrea. Fama hori oraindik hor dago, baina gauzak erabat aldatu dira Herri Eskolan, eta hori da herriari erakutsi nahi dion guna.

Zergatik aukeratu duzu eskola publikoa?

Umeak eskolatu behar izan nituenean ez nuen zalantzarik izan. Batzuek ikastetxea aukeratzeko erosotasunari begiratzen diote; gertutasuna, ordutegia... Baina nik ideologiaz aukeratu nuen. Badakigu Ikastola oso garrantzitsua izan dela gure herrian, baina Ikastolak sortu ziren garaia beste bat zen. Lan handia egin zuten gurasoek Ikastola sortzeko, euskaldunek zuten behar bat betetzeko sortu zuten Ikastola,

**“Euskal Eskola Publikoaren jaia
Elgoibarren ospatzea
lorpen handia izan da”**




garai hartan eskola publikoak ez ziolako behar hari erantzuten. Baina gaur egun lortu dugu eskola publikoak euskaldunen beharrak asetzeari, eta nik uste dut esan dezakegula Elgoibarko Herri Eskola euskalduna

dela. Niretzat hezkuntza eskubide bat izan behar da, publikoa, kalitatezkoa eta euskalduna. Ni oso gustura nago Herri Eskolak eskaintzen digunarekin.



Maria Isabel Etxeberria

**“Hain sentitzen dut nirea
Jata, batzuetan hunkitu ere
egiten naizela umez
inguratuta ikusten dudanean”**



Euskal Eskola Publikoaren Jaiko protagonista nagusia jantzi duzu. Ez zara makal!

Jostuna naiz ni berez, eta jostun batentzako ez da horrenbesteko lana ere, baina bai, lan pixkat eman dit, bai. Gustura egin dut, hala ere; oso gustura. Nere [Nere Oñederra, alaba] etorri zitzaidan ea egingo ote nuen galdezka, eta segituan eman nion baietza. Beste alabak, Olatzek, diseinatu zuen Jata, eta marrazki hura hartu, telak ebagi, montatu eta jostea izan da nire lana. Hamabost bat egun egin nituen papereko hari forma ematen, eta lan pixkat eman zidan, baina ilusio handiz jardun dut egia esan. Bi jantzi egin dizkiot Jatari. Lehenengoa egiteko harrapatuago ibili nintzen denboraz, baina bigarrena geroago eskatu zidaten, eta hori egiteko asti gehiago izan dut. **Alabak egindako diseinuaren gainean jardun duzu lanean. Alabaren lanari fidela izatea bera ere ez da erantzukizun txikia izango.**

Edozeinena izanda ere, berdin egingo nuke. Irudia muntatzea bera egin zait zailena. Pieza bakarreko jantzia da, eta zailena horixe izango zen beharbada, pieza horren atzeko alde jostea.

Aurrez egin al duzu tipo honetako beste lanik?

Ez, sekula ez. Eta ez dakizu zelako ilusioa egin zidan proposatu zidatenean! Gure etxeko beste bat gehiago izan da Jata, eta hain sentitzen dut neurea, oraindik ere hunkitu egiten naizela batzuetan umez inguratuta ikusten dudanean. Beste alaba bat bezala da niretzat. Bilobek ere oso maite dute Jata, eta etxean ikusi dutenez sortzen, harro esaten dute euren amamak egin diola jantzia. Hori ere polita da niretzat. Etxean atera ditugu argazkiak ere Jata jantzita eta ondo gordeta dauzkaten argazki horiek. Kalean edo ekitaldiren batean ikusten dudanean beti sentitzen dut halako zirrara antzeko bat. Ikustekoa da nola hurbiltzen zaizkion haurrak eta nola begiratzen dioten, liluratuta.

Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren antolatzeak zer du berezitat zuretzat? Zer egiteko asmoa duzu egunean bertan?

Ez dakit, baina berezia bada behintzat. Iruditzen zait lan handia egin dutela hau dena antolatzen eta polita dela jai hau norbere herrian egitea. Modu batean edo beste batean, jende askok jardun dugu lanean, eta polita izan da. Egunean bertan ere parte hartuko dut jaiari. Nola ez dakit, baina kontuan hartuta nire bi alaba, Nere eta Amaia, oso sartuta daudela antolakuntza lanetan, ni ere ez naiz urruti ibiliko.

Zergatik erlea?

- Erlea beharrezkoa da ekosistemaren biziraupenerako. Erlerik gabe ez legoke bizimodurik. Hezkuntza ere beharrezkoa da gizartea bizirik mantentzeko, eta eskola publikoa premiazkoa da herriarentzat.
- Erleek euren polinizazio lanaren bidez bizi sortzen dute etengabe, bizitza sortuz bizi dira, eskolak gure seme-alabei bizitzeko eta aurrera egiteko bide askotarikoak eskaintzen dizkien bezala.
- Erleek taldean egiten dute lan, eta taldean bizi dira. Euskal eskola publikoan talde-lanean aritzea gustatzen zaie, taldean bizi eta jolastea.
- Erleek ezta ekoizten dute, eta guztioi eskaintzen digute. Euskal eskola publikoak euskarazko ezta ematen die haurrei egunero, euskaraz bizitzeko aukera.
- Jata koloretsua da, beste erleen artean ezberdina. Euskal eskola publikoa ere koloretsua da, eta denek dute han bere aukera.




Eskola bat, hamaika ikuspegi

Elgoibarko eskola publikoaren eskaintza hainbat ikastetxetan gauzatzen da, eta horietako bat da Herri Eskola. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak hartzen ditu Herri Eskolak, eta hain zuzen ere, hango guraso eta irakasle talde batek hartu du jaia antolatzeko ardura. “Familia handia” da Herri Eskola eta hango kide-etako batzuen hitzak bildu ditugu erreportaje honetan.

VIRGINIA BARRENETXEA, Herri Eskolako irakaslea

“Gure metodologiarekin umeari pentsatuarazi egiten zaio”



Magisteritza ikasketak amaitu ostean Gasteizen jardun zuen lanean hamabost urtez, eta 2001ean iritsi zen Elgoibarko Herri Eskolara. Gaur egun ikastetxeko etorkinekin dihardu lanean, eskolan eta herrian integratu daitezten.

manetan egiten dugu lan, eta gure eskolako proiektu batzuk erabili izan dira eredu bezala.

Zein emaitza ematen ditu proiektutako metodologiak?

Egia da Herri Eskola utzi eta Institutura joaten direnean aldaketa handia nabaritzen dutela metodologian. Azterketa pila bat izaten dituzte, eta materia asko memorizatu behar izaten dute. Baina gure metodologiari esker lanerako tresnak eta estrategiak barneratuta izaten dituzte, eta horrekin konpentsatzen dute. Edozein arazoren aurrean gai dira informazioa bildu eta beraien artean moldatzeko.

Zein da zure zeregina Herri Eskolan?

Azken bost urteetan etorkinekin egiten dut lan, eta ni arduratzen naiz etorri-berri guztiak zubi-lana egiteaz. Eskola eta hau guztia mundu berria da eurentzat, eta horrek sortzen dizkien beldurrak gainditzeko laguntzen diet. Eskolako %20 inguru etorkinak dira, eta ikasle horiekin eta euren familiarekin egiten dut lan. Eskolan daukagun egoera Elgoibarko errealitatearen islada da. Elgoibarrera iritsi dira etorkinak, inork ez du egoera hori aukeratu, baina horrela tokatu da, eta orain guri dagokigu horiek hemen integratzea. Nola esango diegu gure seme-alabei horiengandik bereizteko edo aparte ibiltzeko? Nola pentsatu daiteke gehiago ikasiko dutela gure seme-alabek etorkinekin murgiltzen ez badira? Guztiz kontrako jarrerara hartu behar dugu; euskara irakatsi behar diegu eta bat gehiago di-rela sentiarazi behar diegu. Aniztasun hori aberastasuna da, eta hori gure seme-alabei transmititu behar diegun balore garrantzitsu bat da.

Zer izan da zuretzat Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren antolatzea?

Guretzat oso garrantzitsua izan da. Gure erronka nagusia gure lana eta gure eskola herriari ezagutzera ematea da, eta jai honek asko lagundu digu zeregina horretan.

Zer aurkitu zenuen Elgoibarko Herri Eskolara iritsi zinenean?


Giro oso ona aurkitu nuen, lantalde profesionala, jende gaztea eta lanerako ilusioa. Gasteizera joan-etorriak egiten jardun nuen hamabost urtez eta nekatuta nengoen, eta niretzako herrian lan egitea sekulakoa zen, eta lantalde hori ere baneukanez, askoz ere gusturago joaten nintzen lanera.

Zein berezitasun dauka zuretzat Elgoibarko Herri Eskolak?

Pedagogia oso berritzailea aurkitu nuen hemen. Gasteizen metodologia tradizionala erabiltzen genuen, eta hemen proiektutara egiten zuten lan. Orduan hasi ziren metodologia horrekin, eta eurak ere ikasten ari ziren. Niretzako dena zen berria, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Umeari pentsatuarazi egiten zaio. Erronken aurrean, beraien interesetatik abiatuta, eta beraien eguneroko egoeretan oinarrituta zailtasunak gainditzeko estrategiak garatzen dituzte. Estrategia horiek askotan taldean adostu behar izaten dituzte, eta horri esker taldean lan egiten ikasten dute. Talde-lana oso garrantzitsua da, bai ikasle garaian eta baita gerora ere. Balore oso garrantzitsuak lantzen dira, metodologia aurreratu batekin. Ez da lehen bezala, irakaslea zela protagonista eta ikasleek hark esandakoa buruz ikasi behar izaten zutela. Herri Eskolan ikasleari entzun egiten zaio, eta eurak ere protagonista dira. Gure helburua da eskolatik irteera estrategia horiek menperatuta eta barneratuta. Beste zentro batzuekin harre-

TIMOTEO UCIN, irakasle eta zuzendari ohia

“D eredu martxan jartzeko baimena lortzea sekulakoa izan zen”



Timoteo Ucin sorraluzearra da, eta 1985ean hasi zen irakasle lanetan Pedro Mugu-

rutza ikastetxean. Ordura arte kanoi fabrika batean egiten zuen lan Sorraluzen, baina lan hartaz nekatuta zegoen, eta 30 urterekin lanbidez aldatu behar zuela pentsatu zuen. Magisteritza ikastea erabaki



zuen, baina horretarako Eskola Graduatua behar zuen. Bergarako UNEDen atera zuen, eta segidan, Magisteritza ikasketak egin zituen Eskoriatzan, Haur Hezkuntzako espezialitatean. Hiru urtez jardun zuen lanean eta ikasten aldi berean, baina ikasketak amaitu eta berehala hasi zen lanean irakaskuntzan. Bilbon egin zituen lehenengo bi urteak, eta gero, Elgoibarrera etorri zen. Bere emaztea ere Elgoibarren zegoen irakasle, eta horrek plaza finkoa lortzen lagundu zion, orduan zegoen lege bati esker. Elgoibarren egin zuen lan, orain dela lau urte erretiroa hartu zuen arte.

Timoteo Ucin Elgoibarrera iritsi zenean A eta B ereduak eskaintzen zituen eskola publikoak, baina guraso batzuen laguntzarekin, 1990. urte ingururako D ereduak sortu zuten Pedro Mugurutzan, eta horri esker, haur eskolatik eskola publikoan ere euskaraz ikasteko aukera eskaintzen hasi ziren. "Hasieran ume gutxirekin, baina poliki-poliki indarra hartuz joan zen D ereduak".

Eskola publikoak garai hartan bi eraikin zituen Elgoibarren, Pedro Mugurutzakoa eta Urazandikoa. Matrikulazioak asko jaitsi zirenez, bi ikastetxeak Urazandiko eraikinean batu ziren. Urazandiko eskolan A eta B ereduak zeuden bakarrik orduan arte, baina Pedro Mugurutzakoa ikastetxearekin bat egitean, goiko eskolan ere jarri zuten D ereduak aukeran: "Urteak aurrera egin ahala A ereduak desagertu egin zen, eta geroago B ereduak ere bai". Timoteo Ucin iritiz horixe izan zen euren lorpenik handiena: "Delegaritzatik D ereduak martxan jartzeko baimena ematea sekulako lorpena izan

zen guretzat". Gogoan dauka Timoteok D ereduari bultzada eman ziotenak gurasoak izan zirela bereziki. "Ikastolak pribatu izaten segitzea erabaki zuenean, publikoaren aldeko jarrera zuten familia batzuk gurera etorri ziren, eta haiek bultzada handia eman zioten D ereduari. Juanjo Baztarrikarekin harreman handia izan nuen garai hartan, eta bera izan zen D ereduaren bultzatzaile nagusienerakoa". Aldi berean, ikastetxeari izena aldatzea erabaki zuten, eta Herri Eskola izena jarri zioten.

Timoteok oso oroitzapen ona dauka. Haur Hezkuntzako irakasle izan zen, eta bi urtez ikastetxeko zuzendari izatea ere egokitu zitzaion. Guraso taldearekin harreman estua izan zuen beti. Berak argi dauka eskola gurasoei zabalik egon behar dela. "Guraso eskola harremana ezin da eten". Eskola Kontseiluan gurasoak dira nagusi, eta azken hitza beraiena da. Timoteok esan du gatazka sortzen zuen gai bakarrenetakoa ikasturteko egutegia zela, baina gaineratu du gai horretan legeak esaten duena betetzera behartuta daudela. "Ikasturteko egutegia zaila da gurasoentzat, baina guk ezer gutxi egin dezakegu, eta Jaurlaritzatik ez dut uste aldatetarik etorriko denik. Baina esango nuke umeak uztailean eskolan egoteko formularen bat aurkitzerik egon daitekeela, gurasoek eskatuta, udaletxearekin edo eskolarekin elkarlanean".

60 urterekin hartu zuen Timoteok erretiroa, eta orain aitxita lanetan dihardu. "Beti umeekin lanean jardun dut, eta horrek asko lagundu dit bilobak zaintzeko".

ANDREA ARRIOLA, Kalamua Guraso Elkarteko kide ohia

"Guraso taldea eta zuzendaritza eskutik emanda ari dira lanean"



"Seme-alabak Herri Eskolan eskolatu genituenean, Kalamua guraso taldean zeuden kide batzuk ezagutzen nituen, eta haiek animatu ninduten taldean sartzera. 2002. urte ingurua izango zen. Garai hartan jaiotze-tasak gora egin zuen Elgoibarren, eta poliki-poliki Herri Eskolako matrikulazio kopurua ere goraka hasi zen. Baietza eman nien, eta neu ere hasi nintzen eurekin lanean.

Guraso taldea Herri Eskola ezagutzera emateko lanetan zebilen bereziki. Herri Eskolak fama txarra izan du Elgoibarren, eta nolabait irudi hori aldatzea nahi genuen. Batez ere, gure eskolaren irudia euskaldundu behar genuela pentsatu genuen, eta herriak jakin behar zuela gure eskola euskal eskola publikoa zela. Zeregin horrekin batera, eskolako zuzendaritzari laguntzen genion, gure seme-alabak eskolan ahalik eta gusturen egon zitezten. Zuzendaritzarekin oso harreman ona izan dugu; beti entzun gaituzte eta

guk ahal izan dugun guztian lagundu diogu. Guri tokatu zitzaigun ikastetxeko patioa estaltzeko obra bideratzea, eta uste genuena baino lan handiagoa eman zigun. Lursaila Herri Eskolarena da, baina eraikina Eusko Jaurlaritzarena denez, baimenak eskatzeko bilera pila bat egin genituen Donostiako Delegaritzan. Azkenean onartu ziguten proiektua, eta Udalak emandako laguntzari esker, eskolako patioa estali genuen. Askok irabazi zuen eskolak estalpe horrekin. Lehen beheko patio txikira joan behar izaten zuten umeek euria egiten zuenean, eta leku hura oso hotza zen. Goiko patio estaliak aukera handiak eskaintzen dizkigu. Gero, ikasgelak txiki geratu zitzaizkigun, eta ikastetxea handitzea erabaki genuen, eta berriz hasi ginen bileretan.

Guraso taldeak lan handia egiten du Herri Eskolan. Hasieran, taldean sartzen zarenean, ez dakizu zer aurkituko duzun ere, baina taldearen dinamikak berak eramaten zaitu gauzak egitera. Guraso taldea eta zuzendaritza eskutik emanda ari dira lanean, eta oso lan ona egiten ari dira Herri Eskolan. Nik uste dut poliki-poliki ari garela Herri Eskolaren irudia aldatzen. Etorkinak gure eskolara joaten dira, publikoa delako, eta batzuek hori ez dute ondo ikusten, baina nire iritziak, hori ez da txarra; aberastasuna da. Be-



raiek erakusten dizkigute euren ohiturak, eta guk euskaldundu egiten ditugu; hemen integratzen laguntzen diegu. Guraso taldeak horien integrazioan ere lan egiten du, bai ikasleekin eta baita gurasoekin ere. Euskal Eskola Publikoaren jaia Elgoibarren antolatzeak lan handia eman digu, baina oso ondo etorri zaigu gure

baloreak indartu eta herrian zabaltzeko. Gure eskola euskal eskola publikoa dela aldarrikatzeko modu bikaina izan da. Nik argi daukat hezkuntzak publikoa izan behar duela, eta alde horretatik Elgoibarren zorte handia daukagu, haur hezkuntzatik lanbide heziketara arte publikoan ikasteko aukera daukagulako”.



MAIALEN GURRUTXAGA, ikasle ohia

“Familia handi bat ginen Herri Eskolan eta horrek oso babestua sentiarazten ninduen”

Nola gogoratzen duzu Herri Eskolan ikasle izan ziren garaia?

Oso garai ona izan zen. Adinak ere bere eragina izango zuen horretan, eta ez zegoen hainbeste presio gauzak egiteko orduan. Irakasleak oso gertukoak ziren, asko mimatzen gintuzten eta gure gurasoek ere eskertzen zuten jarrera hori. Gainera pare-parean bizi nintzen, eta oso eroso zen niretzat eskolara joatea. 3 urtetik 12 urtera arte ibili nintzen Herri Eskolan, DBH institutuan egin nuen eta gero Batxilergo Mekan. Niretzat familia handi bat ginen eta horrek oso babestuta sentiarazten ninduen. Hori oso baliagarria egin zait gero, bizitzan eman behar izan ditudan aurrerapausoetan ziurtasuna sentitu baitut, eta uste dut, garai hartako oinarriek zeresan handia izan dutela horretan.

Zein balore transmititu zizkizun Herri Eskolak?

Denok berdinak ginen, inolako desberdintasunik gabe. Elkarbizitzaren ere erakusten ziguten, urtean behin egun batzuk pasatzera joaten ginen landetxe desberdinetara eta horrek asko aberasten gintuen.

Erdal giroarekin lotzen du jende askok Herri Eskola. Zuk nola ikusten duzu?

Ez dut ulertzen zergatik egiten diren horrelako loturak. Agian izango da beste garai bateko eskola publikoa datorkigulako burura, A eredu baina eskaintzen ez zeneko garaiko eskola. Nik

ikasi nuen garaian familia euskaldun asko geunden, euskara erabiltzen genuen, eta giroa euskalduna izan da beti.

Zure ustez euskal eskolak publikoa izan behar du?

Bai, garrantzitsua da irakaskuntza publikoa izatea, edozeinek ikasteko aukera izan dezan. Denok ezagutzen dugun alde nabarmenena ekonomikoa da, eta esan bezala, aukerarik ez duenak ere ikasteko eskubidea du. Baina ez da hori bakarrik. Ekonomikoaz gain balore asko transmititzen dira. Gaur egun, kanpoko umeak ere badaude bertan eta hori oso aberasgarria da eskolarentzat eta baita hemen bertako umeentzat ere, jatorria edozein izanda ere, beti pertsonak garelako eta pertsonok errespetua izan behar diogulako elkarri. Euskal Eskola publikoak anitzia izan behar du, ez jatorriari dagokionean soilik; nik uste dut baliabide desberdinak dituzten familiak ere batzen dituela. Azkenean eskola publikoak hezkuntza ona bermatu behar du, eta hori da nik han bizi izan dudana. Pribatuak garestiagoak dira, hori esan beharrik ez dago, baina nik uste dudana da bietan helburua bera dela: ikasleak bizitzarako behar dituzten oinarriak, hezkuntza eta balioz hornitzea.

Nolakoa iruditzen zaizu Elgoibarko hezkuntza eskaintza?

Hezkuntza eskaintza oso ona da Elgoibarren. IMH eta Meka ditugu lanbide heziketan, eta hauek eskaintza onak eta interesgarriak dituzte. Gainera, gero eta prestatuago irteten dira ikasleak bertatik. Egia esan alderdi horretan lan ona egiten ari dira.



2015eko UDAKO IKASTAROAK

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra
Astelehenetik ostiralera
Hiru ordu
4 urtetik 12 urterarte

- Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena
- Programa trinkoa
- Dinamikoa eta praktikoa
- Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu




SAN ROKE KALEA, 20
TEL: 943 744 457
ELGOIBAR

www.colchonerialagunak.com

**Orain bai ez duzula
koltxoiz ez aldatzeko aitzakiarik!**
**Lagunak Koltxoi-dendan aurkituko duzu zurea,
hilean 9,50 eurogatik**



terxy



San Frantzisko, 54 behea
20870 ELGOIBAR
Tel. / Faxa: 943 748 918
Mugikorra: 687 694 264
osokak@gmail.com

www.lacook.com/osoka/altzariak/altzariak/altzariak

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA *Oihane Osoro Kaperotxipi*

- ERREFORMAK
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ALTZARIAK LOGELARAKO, EGONGELARAKO, SUKALDEAK, ARMAIRUAK, ETAB.
- QUICK STEP LUR ZORU LAMINATUEN BANATZAILE OFIZIALA



DARIO bus



ESSER N-N1 Industrialdea
20850 MENDARO (Gipuzkoa)
Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 677
943 203 442
607 410 410
www.dariobus.com
clientes@dariobus.com

Ekainaren 1etik 20ra

Egin erosketak **TXANKAKUA**
Txartelarekin eta **10€ edo 20€ko**
sariak irabazi ahalko dituzu.

Begiratu erosketak, ea saria duten.



**Elgoibarren
Bizi - Erosi
Herriak Irabazi!!**



Lagarzialdea:



Babeslea:



Egun bat baino askoz gehiago



Balmase-
dan hartu
zuten le-
kukoa Herri Es-
kolako kideek
iazko Euskal Eskola
Publikoaren jaietan, eta
une hartatik ez dute

atsedenik hartu. Urte osoan zehar jardun dute ekintzak antolatzen, beti ere helburu bakarrarekin: Herri Eskola herritarrei ezagutaraztea eta gerturatzea. Asko eta asko izan dira antolatutako ekintzak, eta Jataren presentzia nabaria izan da herrian izan diren ekimenetan. Bi orriotan jasoko ditugu urtean zehar egin diren ekintzetako erretratu batzuk.



Porrotxek Herri Eskolara egin zuen bisita.



Jatak eraman zuen Korrikaren lekukoa.



'Jataren Koloreak' ipuina aurkeztu zuten sotoan.




San Sebastian Egunean parte hartu zuen Jatak.



Realak ere bat egin zuen eskola publikoaren jaiarekin, eta Herri Eskolako umeak Anoetan izan ziren.



'Txikimusika' egitasmoak arrakasta handia izan du.



Ezkerrean, Txomin Mujika Udal Musika Bandako zuzendaria Jatarekin, 'Txikimusika' egitasmoaren baitan. Eskuman, Jata Euskararekiko konpromisoa aldarrikatzen, Euskararen Egunean.



Lehendakaritzan harrera egin zieten Herri Eskolako ordezkari.



'Emakumeak eta Kirola' erakusketa antolatu zuten Realak eta Kalamua Guraso Elkarteak.



Jorratzen dituzten baloreak aurkeztu zituzten ekitaldiko argazkia.



Donostian aurkeztu zuten jairako prestatu duten kanta.



Sanlok ere bat egin du Euskal Eskola Publikoaren jaiarekin.



Flash mob-a egin zuten Kalebarren plazan.



Kalejiran irteten ziren Euskararen Egunean.





CLINICA DENTAL ELIZPE

HORTZ KLINIKA

☎ 943 752 567

Elizburu, 3 behea SORALUZE

ORDUTEGIA:
Astehelentik ostiralera
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com



- ⊕ AURREKONTUAK ETA ERRADIOGRAFIA DIAGNOSTIKOAK DOAN
- ⊕ FINANTZATZEKO AUKERA
- ⊕ UNIVERSALUD ASEGUAREN BARNE.

- ⊕ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ⊕ ORTODONTZIA
- ⊕ UMEEN TRATAMENDUA (P.A.D.I.)
- ⊕ ERREABILITAZIOAK INPLANTEEKIN
- ⊕ ERREABILITAZIOAK ZERAMIKAREKIN

SALENTO BAR PIZZERIA

Pedro Migel Uruzuno, 10 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 196
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo



- ✦ Etkez etxeko banaketa, ostiral, larunbat, igande, jaiegun eta jai bezperetan
- ✦ Sukaldaritzza italiarra
- ✦ Pintxo bereziak: pizza zatiak, calzone txikiak...
- ✦ Izozki artisauak



San Bartolome 30,
Tel.: 680 724 060
Plaza txikitik ere badu sarrera!
ibarrenea@hotmail.es

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN
EGINDAKOA

KONTSERBAK
ETA ARDOA



MULTIÓPTICAS Uzuri San Prantzako, 21 Celolara 7
ELGOIBAR DEBA
Tel. 943 740 359 Tel. 943 192 192

AUDIOLOGIA ZERBITZUAK

- **Audifono digitalak**
- **Konponketa eta mantenua**
- **Entzumen laguntzak**
 - Tb entzuteko sistemak
 - Bibraziozko erlojuak
 - Telefonoak
- **Akufenoen terapia**
- **Neurrira egindako Tapoiak**
 - Zararentzat
 - Igeriketarako
- **Moldeak**
- **Pilak**
- **Estudio Audiologikoak**
 - Audiometriak
 - Entzumen sistema
 - Belarri barruko mukiak





• **GOSARIAK**
• **PINTXOAK**
• **EGUNEKO MENUAK**
• **BOKATAK**
• **RAZIOAK**
• ...

Maala Kafetegia
Pedro Muguruzta, 5
Tel. 943 257 421

Maala

KAFETEGIA

www.facebook.com/pages/Maala-kafetegia/1512342115683641



Ehun metro koadroko tatamia
alokatzen da orduka.
Egokia yoga, pilates, arte martzialak
eta abarrak egiteko.
Informazioa 676 534 106



Tatamia alokairuan!

SAHATZU HARATEGIA

Santa Ana, 5
T943 742 048

JON ULAZIA
"SAHATZU"




SUPER BAT KONTUA
ORAIN **AURREZTEA ETA GOZATZEA**
ABENTURA BEREAN SARTZEN DIRA

- 0 eta 15 urte bitartekoentzat.
- Erabateko malguta suhez eta komisiorik gabe.
- Aurrezkiek puntuak ematen dituzte, Super Bat Katalagoa* opariez trukatzenko.



*Super Bat Katalagoa puntuak, hainbat produktu eta zerbitzu bidez ematen dira.



LABORAL KUTXA
ESKOLA PUBLIKOAREKIN
ELGOIBARKO bulegoa:
San Ignazio, 1 - Elgoibar
Tel. 943 740 654

LABORAL
kutxa

BIZKOR BIZIKLETAK

Bizikleten salmenta eta konponketak



Uparitzaga, 8 Elgoibar
Tel. 943 055 049
bizkorbizikletak@hotmail.com
www.facebook.com/bizkorbizikletak

- **%15eko** deskontuak karbonozko bizikletetan, kupoi hau erakutsiz gero
- **%10eko** deskontuak aluminiozko bizikletetan, kupoi hau erakutsiz gero
- **%5eko** deskontuak osagarrietan betirako.

Irailaren 30era arteko balioa du eskaintza honek.
Deskontu hau ezin da pilatu.






ulertzen...”, dio. “Nik ingelesez egin behar dudanean bezala sentituko zen. Batzuek barre egingo zioten, baina gero gu jartzen garenean bere lekuan... ez zaigu gustatzen guri inork barre egitea”, gehitu du Markel Orbeak. Enpatia zer den jakin ez arren, bizi dute haurrek. “Badakigu lagundu egin behar diegula guk. Irakasleak ere esan izan digu guri ere ez litzaigukela gustatuko atzerrira joan eta ezer ulertzen ez dugulako jendea guri barre egiten hastea”, azaldu du Aimarrek. Isilik dago Sasha. Sabahren antzera etorkina da bera ere. Ukraniarrak ditu gurasoak eta Santandertik (Espainia) iritsi zen gurera, 4 bat urteko zela. Errusieraz eta gaztelaniaz egiten du gurasoekin eta euskaraz lagunekin. Uste du Sabahk baino errazagoa izan zuela berak bertakotzea, oso ume zela iritsi zelako. Bertakotze prozesuaz galdetu dio kazetariak, etorkina delako berez, baina Sasha erantzunik gabe gelditu da. Bistan da; ez du galderarentzako erantzunik, bertakoa delako. Kasu bera da Dune Hansenena ere. Euskalduna du ama eta alemaniarra aita, eta Mallorcan (Herialde Katalanak) jaioa da bera. 3 urterekin eskolatu zuten euskal eskola publikoan, eta elgoibartarra da. 11 urte ditu, eta heldutasun handiz esan du: “Ezberdinekin egotea ona da”.

Euskal Eskola Publikoaren jai

Aniztasuna aberastasuna da, bestera esanda. Aipatu dute umetan egun batez protagonista izateko aukera eskaini zietela esko-

lan eta eraman zituztela gurasoak gelara, eurrei buruz hitz egitera. Oso ekimen polita izan zela aipatu dute guztiak. “Asko ikasi genuen”, nabarmendu du Aimarrek. “Nik Pakistando arropak ere eraman nituen gelara behin, nire gelakideek jantzi nahi zituztelako”, gehitu du Sabahk. Etorkinak eta hemen bertan jaio eta hazitakoak hurbildu eta elkarren kulturen berri izateko primerako aukera izan zutela diote haurrek, baina bide batez, euskarekiko lotura afektiboak ere landu zituzten, besteen bizipenetatik abiatuta. Mundua dute eskura ikasle hauek. Halaxe dio Aimarrek, natural: “Senegaldiak Babacar iritsi zen bigarren mailan geundela, Boliviatik Paul eta Carola etorri dira, Sabah Pakistandik, Dune Mallorcartik, Dominikar Errepublikako lagunak ere baditugu... eta haiei esker guk badakigu nola bizi diren han, zer jaten duten eta beste gauza asko ere bai”.

Txandarik hartu gabe ari dira tertuliakideak. Badakite beraiek direla Euskal Eskola Publikoaren jaiko protagonista nagusiak, eta antzematen zaie ilusioz daudela. Ondo ezagutzen dute euren eskola, baina nahi lukete besteek ere ezagutzea, eta gonbidapena egin diete. “Jai handia izango da, eta uste dut ikastetxea zabalik egongo dela ikusteko. Lan handia egin dugu, eta nahi duenak ikusi dezake hemen”, dio Aimarrek. Eskolako horma eta korridoreak okasiorako apainduta daude. Jata erlearen irudiak non-nahi ageri dira, eta euskal eskolak be-

BALOREAK

EUSKARA:

Euskaraz bizi nahi duen eskola nahi dutelako.

BERDINTASUNA:

Irakasleak berdintasunean hezi nahi dituztelako.

ERRESPECTUA:

Elkarren arteko harremanak osasuntsuak izatea nahi dutelako.

NATURZALEAK IZATEA:

Natura zaintzen ikasten ari direlako.

ANIZTASUNA:

Munduak zapora, usain eta soinu desberdinak behar dituela sinetsita daudelako.

ERAIKITZAILEA:

Mundu hobea sortu dezaketela sinetsita daudelako.

HURBILTASUNA:

Irakasleek, bestelako langileek, ikasleek eta gurasoek eskutik helduta egin nahi dutelako aurrera.

ELKARTASUNA:

Ezinbestekoa ikusten dutelako.

BIZI-BIZIXA:

Eskola bizi-bizixa eta ekintzailea izatea nahi dutelako.



Erreportajerako batu ziren neska-mutilak, solasean.

re dituen baloreen inguruko aipamenak ere bai. Jata erlea bera ere ikastetxean dago gaur, jantzia egin dion jostunarekin, Maria Isabel Etxeberriarekin. Ikustekoa da Jatak sortu duen ikusmina argazki handirako eskolako patiora bistaratu denean. Estimutan dute eskola-umeek. Igandeko jai handia iristeko irrikaz dira haurrak, “parte hartzeko gogo biziz”. “Gauza asko egongo dira eta kanpotik ere jende asko etorriko da”, dio Markelek. “Orain gutxi egon da ba Senperen jai handi bat? Ba haren antzeko zerbait izango da igandekoa, baina hemen, Elgoibarren”, gehitu du ondotik Aimarrek. Jolaserako eta dantzarako prest daude, eta parte hartzera deitu dituzte elgoibartar guztiak. Gurasoak eta ikasleak lanean izango dituzte egun horretan eta nahiko lukete egindako lanari jendeak parte hartuz erantzutea. Propaganda egin dute, eta itxaropena badute jende asko batuko dela.



Lorez lore dantzan

IBAN URIZAR



“Erronka handia izan da, sekula ez nuelako aurrez halako zabalkundea zuen lanik egin”

Zer nolako kantua nahi zenuen egin, eta zergatik?

Abesti zuzena izan behar zen, umeentzat gustagarria, gertukoa eta erraza, eta aldi berean, dantzagarria, itsaskorra eta leloa bera erraz go-goan hartzekoa. Era berean, nik argi neukan eskolaren izaera ere isladatu behar zela abestian, eta saiatu naiz musikalki jatorri ezberdineko doinuerak sartzen, bai Latinoamerikakoak, Afrikakoak... eta, noski, gureak ere bai. Halako jaietarako egin ohi diren kantuek ezagutzen ditugu denok eta ska erritmoetarako joera garbia da berez. Nik garbi neukan,

Zuhaitz Gurrutxaga



Uxue Alberdi



kan, baina, ez nuela skarrik egin nahi eta horrekin apurtu nahi nuela.

Musikari talde handi batek parte hartu du grabazioan. Zergatik horiek?

Argi neukan Elgoibarko jendearekin egin behar nuela dena. Kanturako batu ditugu elgoibartarrak ez direnak ere, baina musikarien artean, Joanes Ederria (baxua) eta Oreka TX-


koak ez beste guztiak hemengoak dira: Patxi Zabaleta (gitarrak), Naia Membrillera (perkusioa), Baltzola anaiak (trikitia eta panderoa), eta Iban Ginea, Aitor Nova eta Andoni Riaño (haize-instrumentuak). Bueno, Andoni mendararra da, baina Mendarok harreman estua izan du eta du Elgoibarrekin, eta ni neu ere han ari naizenez eskolak ematen, gertukoak ditut oso. Mendaroko musika eskolako Ameikutz abesbatzako neskak ere jarri ditugu kantuan, adibidez. Haiez gain, halako abestietan egin ohi den bezala, beste aurpegi ezagun batzuk ere batu ditugu ahalpaldi batzuk abesteko: Aiora Renteria (Zea Mays), Jose Mari Agirretxe *Porrotx*, Uxue Alberdi eta Zuhaitz Gurrutxaga. Letrari dagokionez, aipatzekoa da, era berean, Mikel Olaizolak egin duen lan ederra. Abestia bera koplak formatoan dago egituratuta, eta nik garbi neukan bertso munduko norbaiti eskatu behar geniola kantua idaztea. Mikeli eskatu genion, eta asko gustatu jaku idatzi duena.

Non grabatu duzue kantua?

Azpeitian grabatu genuen, hiru egunetan. Elektrikak grabaketak estudioan egin genituen grabazioak, Ander Barriuso eibartarraren gidaritzapean. Luxu bat izan zen, egia esan. Oso grabazio erosoa izan zen.

Eta azkarra ere bai, hiru egunetan dena bukatzeko!

'Porrotx'



Patxi Zabaleta

Bai, oso azkarra. Dena oso lotuta eraman genuen. Abestia konposatuta neukan eta parte guztiak oso lotuta eta zehaztuta nituen joan ginenerako. Ba-



koitzak bazekien zer egin behar zuen, eta primeran irten zitzaigun dena; erraz. Musika-riek sekulako lana egin dute. Nik ez dut nota bakar bat ere jo. Lehengo aldia da halako proiektu batean sartu eta nota bakar bat ere jozen ez dudala. Abestia egin, arregloak egin eta jendea zer jo behar duen esatea izan da nire lana oraingoan, eta jo beraiek egin dute. Eta noski, musikaria izanda, jo gabe egote hori sentsazio arraroa izan da niretzat.

Herri Eskolako guraso ere bazara zu. Pentsatzen dut kantua prestatzeko eskaera hau berezia izango zela zuretzat.

Bai, noski. Gustura hartu nuen, bazelako niretzat erronka bat, sekula ez nuelako aurrez horrenbesteko oihartzuna edo zabalkundea izango zuen ezer egin, edo behintzat ez delako halakorik sekula nire ardura-pean egon. Eta gero, hemengo guraso izanda, erantzukizuna ere beste bat da. Oso erronka polita izan da, bai. Emaitzarekin ere gustura gelditu naiz. Lehen aipatu dizkizudan parametro horiek betetzen dituela uste dut, eta pozik nago.

Musikaren ardura eman dizute zuri. 'Txikimusika' egitasmoa ere sortu duzue Euskal Eskola Publikoaren jaiaren harira. Nolatan bururatu zitzaizuen? Zer nolako balorazioa egiten duzue?

Jaiari begira urtean zehar ekintza ezberdinak egin nahi ziren umeentzat, beti ere eskolaren baloreak aintzat hartuta, eta halaxe, herriko eragile ezberdinekin elkarlanean zerbait antolatzea proposatu zuten guraso elkartetik. Orduan bururatu zitzaigun *Txikimusika* sortzea, herrian musikaren munduan dabiñan beste elkarte eta lagun batzuekin batera. Halako ekimenak egiten dira eta egin izan dira beste leku batzuetan, eta beti funtzionatu izan dute. Horregatik probatzea erabaki genuen. Elgoibarko Udal Musika Bandako lagun batzuekin hitz egin genuen eta *brainstorming* bat egin ondoren forma eman genion.

Andoni Riaño, Aitor Nova eta Iban Guinea



Dotore irten zen. Maite Mursego musikari eibartarrarena izan zen bigarren saioa. Maitek egin izan ditu halakoak, badu esperientzia, eta proposatu genionean berehala esan zigun baietz. Belcebluesek, beriz, badu antzeko proiektu bat haur hazitxoagoentzat, eta haiekin bluesaren historia errebasatu genuen. Eta azkena Munlet Mendaroko bikotearen saioa

Naiia Membrillera



izan behar zen, denetan dantzagarriena, baina azkenean bertan behera utzi behar izan dugu, agenda kontuengatik. Oso erantzun ona izan dute ekitaldi guztiek eta gu oso pozik gaude izan dugun erantzunarekin. Jendea oso gustura egon da, eta batzuek esan ere egin

digute urtero egin beharko lirakeela halakoak. Haurrei zuzendutako hiru ekitaldi izan dira, baina bai musikalki eta baita emateko orduan ere oso ezberdinak izan dira hirurak, eta denek izan dute harriera bikaina.

Auzolanean jardun duzu zuk eguna prestatzen. Egunean bertan zer egiteko asmoa duzu?

Guraso lanetan ibiliko naiz ziurrenik, haurrak zaintzen. Egun berezia izango da ekainaren 7a. Jai hau Elgoibarren egitea polita da herriko eskola publikoarentzat eta baita herriarentzat berarentzat ere. Lan handia egin da, jende asko ibili da isileko lanean eta jende horrek aitorza bat merezi du. Horregatik espero dut jendeak parte hartzea, ilusio handiz antolatu dugun jai delako. Bilera ordu asko egin dira denontzako izan nahi duen egun hau antolatzeko.

Iban Urizar





MIKEL OLAIZOLA



“Ohore handia izan da niretzat”

Nola hartu zenuen Euskal Eskola Publikoaren jairako kantua letra egiteko egin zizuten eskaintza?

Ohore handia izan zen niretzat. *Ni ere banaiz BARREN* kanpainarako sortu zenuen Astokaka jokorako kantua alde batera lagata, lehenengo aldia zen halako zerbait egitea eskatzen zidatena eta hasieran beldur pixkat eman zidan, sekula egin gabeko gauzek ematen duten beldur edo segurtasun-ez hori, baina gustura egin dut, oso gustura. Eurek ere, eskolako guraso elkarteak-eta, oso gertu sentitu ditut denbora guztian eta babes hori izan dut. Lehenengo egunetik bertatik ohorea izan da niretzat hau egiteko aukera izatea, baina gero ikusi dudanean zeintzuk abestu duten... Izugarria izan da. Aiorak, Porrotzek... jende on askok parte hartu dute, eta oso polita izan da. Elkarizketa hau baliatu nahiko nuke eskerrak emateko Kalamua guraso elkartekoei nigan sinistu izanagatik lan honetarako eta behar izan ditudanean eskaini didaten laguntzagatik.

Zertan oinarritu zinen letra sortzeko orduan?

Irzipide batzuk eman zizkidaten lanean hasterako. Eskolak bere dituen baloreak zeintzuk ziren azaldu zidaten eta haiei tiraka egin dut nik letra. Kantuaren errepika edo leloa ere, *Jata, jaku* hori, beraiek eman zidaten, eta horrek elgoibartarrez idaztera baldintzatu ninduen. Esango nuke, baina, asko gustatu dela, jende asko etorri zaidalako esanez asko gustatu zaiela herriko euskaran idatzi izana. Oro har, umeen neurrirako letra egitea zen kontua, metafora eta konplikaziorik gabea, eta uste dut asmatu dugula.

Hamaika bider entzungo zenuen honezkeroko kantua. Gustatu zaizu zein doinu eman dioten?

Bai. Oso dantzagarria da, eta alai; oso polita. Bideoklipa ere itzel gustatu zait, eta pozik, oso pozik nago emaitzarekin. Letrak ere irabazten du! Nik uste dut asmatu dugula eskolaren izaera islatzen kantuan. Eskola euskalduna da, jatorri ezberdineko haurrak batzen dituen, eta gertukoa, herrikoa. Horiek ziren jaso nahi genituenak eta nik uste dut kantuan oso ondo islatzen direla balore horiek. Mundu txiki bat da euskal eskola publikoa, ondo eta modu politean funtzionatzen duena.

Euskal eskola publikoaren jai Elgoibarren antolatu izanak zer esan nahi du zuretzat?

Egia da ni beti ikastolako umea izan naizela eta atxikimendu handiagoa izan dudala ikastolarekin, baina hau egin izanak balio izan dit, hein batean, eskola publikoaren proiektua ezagutzeko, eta jabetzeko jende interesgarri eta baliotsu asko ari direla proiektu horretan lanean, hemen Elgoibarren behintzat. Herri honetan eskola publikoa eta ikastolaren artean beti egon da halako lehia bat eta badago oraindik ere zerbait, eta iruditzen zait badela garaia gai hau naturaltasunez lantzeko eta kontu hau behingoz normalizatzeko.

Zer egiteko asmoa duzu domekan?

Atxutxiamaikako hezitzaileok lanean jardungo dugu egun horretan, eta ni ere hor ibiliko naiz.

‘Jata Jaku’ abestia

*Gustatzen jata gure
eskola bizixa,
etorkizun izango
dan udaberrixa.
Erlien gisan gabiz
dantzan lorez lore,
mundu txiki bat jantziz
hamaika kolorez.*

*Aldapatik begira
bailara estura,
geranaren segida
zabalik mundura.
Mingaina irri bati
daukagu lotuta,
euskeraz bizitzia
gustatzen jaku eta.*

*Aniztasunak dakar
aberastasuna,
horixe da eskolan
gustatzen jakuna.
Danok desberdin, baina
eskutik helduta,
ekipo berdinian
jokatzen dogu eta.*

*Elkarlanak emaitza
gozuak berekin,
erlien ahaleginak
eztixa etekin.
Danona, irikixa
eta herrikua,
gustatzen jata Euskal
Eskola Publikua.*






ESKERTZA

ROSARIO ARANA LASKURAIN

2015eko maiatzare 21ean hil zen, 98 urterekin.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



III. URTEURRENA




JOSEBA BILBAO GARATE

*Maiatzarekin batera heldu da udaberria,
non landareak diren loratu.
Ekainaren laugarren egunarekin batera,
Joseba zaitugu gogoratu.
Bizitzak emandako milaka une
elkarrekin genituen gozatu.
Gure bihotzeko txoko batean, ene laguna,
betiko egin zara geratu.*

2012ko ekainaren 4an hil zen,
48 urte zituela.

Koadrilakoak



III. URTEURRENA

JOSEBA BILBAO GARATE

2012ko ekainaren 4an hil zen.

*Zure oroimenak
indartzen gaitu*





Elgoibarko Izarra Txiki Eguneko herri bazkaria antolatzen ari da.



Ostalarientzako oharra: bazkaria prestatzeko interesa izanez gero, jarri gurekin harremanetan, ekainaren 9a baino lehen



elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus




Tel.: 943 748 883 / 943 741 626

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



Galvan's Barbershop

GIZONENTZAKO ILE-APAINDEGIA

Arragueta, 8 behea
Eibar
Tel.: 653 724 014



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Bellotza
Loradenda

Mendarozabal, z/g (Ospitale aurrean)
Mendaro
Tel. 943 756 252

ASTELEHENETIK OSTIRALERA:
8:00retatik 19:00retara
LARUNBAT ETA IGANDEETAN
9:00retatik 13:00etara

Enkarguak jasotzen ditugu 24 orduz
Tel.: 665 724 848



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 modeloa
Tel. 943 748 670

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolatu ezartzea
Lantekura eguzki, aluminio, PVC
Pintura orokorra

GRUPO VILARCHAO



URKIDI
AHOLKULARITZA

 Liberty
Aseguruak

Oihana Urkidi
oihana@urkidi.net

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12





Gabi

jatentzea

Pintxoak
Bokatak

Menu berezia igande honetarako

Kalebarren plaza, z/g
Tel. 943 741 230

Zatoz gure bokatak probatzera!




PITXINTXU
opari-denda

San Frantzisko, 27 - 695 788 492
pitxintxu@euskalnet.net - www.pitxintxu.com



Produktu eta tratamendu biologikoak

Azalaren zainketarako
beste kontzeptu bat

Biogarbitzaileak
Bioemultsioak eta olioak
Esfollagarriak
Aurpegi-maskara



Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturak

dukamara
biomarketa

Errosario kalea, 19 behea
Tel.: 943 742 950




ONGI iturgintza

Bainugelak
Gasa
Klimatizazioa
Energia berriztagarriak
Gremioen koordinazioa
Etxebizitzaren diseinua

Galdara errebisioak egiten ditugu

Pedro Muguruza Etorbidea 11- behea
20870 ELGOIBAR Gipuzkoa - Tel.: 943 254 522 - Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com - www.ongielgoibar.com





Eskaintza osoa

Elgoibarko eskola publikoan



HAUR ESKOLA

Haurra lasai, seguru eta pozik sentiaraztea da Haur Eskolaren helburu nagusia. Adin tarte honetan ez dituzte jolasa eta ikaste jarduerak bereizten, egiten duen guztiarekin ikasten duelako haurrak. Haur bakoitza da ezberdina, eta bakoitzari bere bidea egiten utzi behar zaiola sinetsita dau-de hezitzaileak, "presarik gabe eta garatzeko behar duen denbora osoa emanez". Uste dute lasaitasun eta konfiantza giroan hazi behar direla haurrak, eta horretarako, autonomia eman eta errespetatu behar zaiela. Hori guztia laguntzeko ezinbesteko ikusten dute familia eta hezitzaileen arteko elkarlana lantzea, eta helburu horrekin ari dira lanean.

Haur eskola, datutan:


35 ume dituzte guztira.
0-1 urte artekoak: 10 ume
1-2 urte artekoak: 25 ume

HERRI ESKOLA

Euskal Eskola Publikoaren baloreak bere egiten ditu Herri Eskolak eta Kalamua guraso elkartekoekin elkarlan zuzenean ari dira balore horiek lantzen eta hauspotzen. Euskara, berdintasuna, elkarrenganako errespetua, aniztasuna, hurbiltasuna, elkartasuna... dira, besteak beste, Herri Eskolako hezkuntza proiektuaren zutabe nagusiak.

Herri eskola, datutan:

548 ume dituzte guztira
Haur Hezkuntzan: 229 ikasle
Lehen Hezkuntzan: 319 ikasle





INSTITUTUA

Elgoibarko Institutua bi eraikuntzatan banatzen da. DBH eta ZIG gelako ikasleak Arreiturre Institutuko eraikuntzan daude, eta Batxilergoko ikasleak Ezenarro eraikuntzan, Mekakoekin batera. DBH eta Batxilergoa eskaintzen dute Institutuan beraz, eta ZIG gelak ere badituzte. Proiektu asko lantzen dituzte. Orokorren artean, Elkarbizitza Plana, Hezkidetzeta proiektua, Agenda 21, Liburutegi proiektua, kulturartekotasuna..., eta pedagogikoen artean, Hizkuntza indartzeko programak eta Hezkuntza berariaz sendotzeko laguntza programak.

Elgoibarko Institutua da elkarte autonomoan bakarretakoa bi kalitate programa betetzen dituena: bata, Hezkuntza delegaritzatik eskatzen dietena, Kalitatea Hezkuntzan eredia, eta bestea, kanpotik datorrien AENORrren ISO9001 eredia, non irakasle eta zuzendaritza taldekoek, urtero barne eta kanpo-ikuskaritzak izaten dituzten, ikastetxeko kudeaketa prozesuak ondo eramanak direla ziurtatzeko.

Institutua, datutan.

498 ikasle dituzte guztira

DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: 280 ikasle
ZIG geletan [DBH etapa berak erantzun egokirik eman ezin dieten ikasleei garapen personala lantzen eta lan mundurako prestatzen laguntzen diete ZIG geletan]: 11 ikasle

Batxilergoan: 207 ikasle. Horietako 127 ikasle zientifikoan ari dira, eta 80 humanistikoan.



Ametsen garaia



Ametsen garaia zen hura. Dena zegoen pil-pilean, eta bide berriak ireki zitzaizkigun ordura arte debekatuak zeuden ateetatik. Gazteak ginen, eta belaunaldi gazteen kementa genuen, pentsatutakoa aurrera eramateko.

Zegoena, tamalgarria, ez zitzaigun batera gustatzen, eta pentsatu izan genuen jendartea hobetu zitekeela, erakundeak eratu. Ideia berriak, berriak, ilusioa sortzen zizuten ideia eta ekintzak geureganatu genituen, eta hainbat amets, irudikatu.

Euskal Eskola Publikoa zen amets setakoa. Etorkizunerako hezkuntza eredu berria. Euskaraz, eta eleanitza; Klase diferentziak geletan bereizgaitz egingo zituen; Geure buruaren eta historiaren jabe, lurreko herriekin elkartzasunean lotua; Teknologia berrietan jantzia, eta aldi berean, giza harreman hunki-

garriak garatzeko ahalmentsua. Amalurra maitatzen eta zaintzen erakutsiko ligukena. Eta batez ere, geurea, geuk egindakoa, geuk erabakitako Curriculumarekin.

Elgoibarren ere, ildo horretan, eskola bakarra nahi izan genuen, baliabideak era egokian bildu eta erabiltzeko, hezkuntza komunitate oso eta bateratua bide beretik joan zedin; Euskalduna, ume eta gazteen euskalduntzea burutzeko bide. Publikoa, bertakoa, kanpokoak, haratagokoak, guztiak jasoko lituzkeena, gure jendarte eta kultura maitatzen ikas genezan eta zezaten, elkar aberastuz.

Bi hamarkada eta gero, errealitatea gordina dela konturatu izan gara, eta amets haien hor gelditu izan dira nonbait, irudimeanean gauzatu ezinik. Eskola Publikoan aurrerapenak izan dira, noski, eta egun nagoen tokitik, Elgoibarko Institutuko zuzendaritzatik, ikus dezaket irakaskuntza euskaldunduta,

ezagutza mailan bederen, eta etorkizunerako prest dauden gazte burutsu bezain kritikoak eratzten ditugula, euren erraiez kontziente diren pertsona jator, langile eta umoretsuak. Ez da gutxi.

Hala ere, beti izan dugu, eta beti daukagu zerbait edo norbait lorpen txikiak ere zapuztu nahian, ardurara eta egonezina eragiten diguna, botereaz baliatuz hezkuntza sistema arrotza inposatu nahi diguna. Hau ere egunerokoa.

Gauzak horrela, Elgoibarko Herri Eskolako guraso gazteek, belaunaldi gazteek, berriro ere, Euskal Eskola Publikoaren lekukoa indartsu hartu dutela ikustean, ilusioak bihotzean eragin dit. Ea oraingoan ere aurrerapauso handi bat ematen duzuen, merezi duen ametsa da-eta. Gora Zuek! Gustatzen jata, jaku, benetan!

Iñaki Odriozola Sustaeta



MEKA IKASTETXEA

Bost lan arloko ikasketak ematen dituzte Mekan: Administrazio Kudeaketa, Automozioa, Fabrikazio Mekanikoa, Gizarte eta Kultur Zerbitzuak eta Osasungintza. Guztira, 11 lanbide ezberdinetarako prestatzen dituzte ikasleak. Datorren ikasturteari begira, aurtengo eskaintza mantentzeaz gain, arratsaldeko eskaintza partzialean, Soldadura eta Galdaragintza erdi mailako zikloa ere eskainiko dute.

Meka, datutan

Guztira: 526 ikasle

- Administrazioa eta Finantzak goi mailako zikloan: 42 ikasle
- Administrazio Kudeaketa erdi mailako zikloan: 34 ikasle
- Automozioa goi mailako zikloan: 40 ikasle
- Ibilgailu automobilen elektromekanika erdi mailako zikloan: 35 ikasle
- Karrozeria erdi mailako zikloan: 36 ikasle
- Makineriaren elektromekanika erdi mailako zikloan: 32 ikasle
- Metal eraikuntzak goi mailako zikloan: 18 ikasle
- Soldadura eta Galdaragintza erdi mailako zikloan: 29 ikasle
- Haur Hezkuntza goi mailako zikloan: 64 ikasle
- Mendekotasun egoeran dauden arreta eskaintzeko zikloan: 39 ikasle
- Goi mailako zikloetarako sarbide proba: 60 ikasle
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak erdi mailako zikloan: 97 ikasle



IMH MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA

1 989ko abenduaren 21ean sortu zen. Mekako fabrikazio mekanikoaren atala zena ikastetxe osoa bilakatzea erabaki zuten orduko ikastetxeko arduradun, erakundeetako agintari eta inguruko enpresek. Industriaren eta gizartearen zerbitzura dagoen teknologia berrikuntzarako ikastetxea da, eta hiru eginkizun nagusi ditu: prestakuntza teknikoa, hedapen teknologikoa eta enpresei zerbitzuak eskaintzea. Eusko Jaurilaritzako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa da, Gipuzkoako Ikaslaneko partaide.

IMH, datutan:

Guztira 1.889 ikasle ditu IMHk.

Hasierako Lanbide Heziketan: 509

Heziketa zikloetan: 236

B-learning: 125 (urrutiko prestakuntza)

Txinako ikasleak: 148 (Tianjin SCMS ikastetxean)

Ingeniaritza dualean: 116 ikasle

Enplegurako prestakuntzan: 1.262 ikasle



M. Axun Larrañaga, Meka Lanbide Eskolako zuzendaria

Nola baloratzen duzu Elgoibarren hezkuntzako bide osoa publikoan egin ahal izateko aukera?

Elgoibarko herriak aukera bikaina eskaintzen du gure seme-alabak hezkuntza publikoan hezteko. Haur eskolan hasi, Herri Eskolara gero, Arreiturre institutura ondoren eta bukatzeko, lan merkatura salto egiteko, Meka Lanbide Eskolara edo IMHra. Mekari buruz hitz egitea dagokit niri. Begira, guretzat Finlandiako hezkuntza da eredu. Birritan izan naiz han, hango sistema bertatik bertara ezagutzeko, eta ikaragarria da. Metodologia berritzaileak erabiltzen dituzte,

gurasoen inplikazioa handia da, irakasleak prestigio handiko profesionalak dira eta klase ordu gutxiagorekin lortzen dituzten emaitzak handiak dira. Sistema publikoan sinisten dugunontzat publikoan hori dena egin daitekeela ikustea da aipagarriena. Elgoibarko dagokionez ere esan behar dugu eskola publikoa aukera bikaina dela gure seme-alabentzat.

Zer eskaintzen du Mekak?

Goi eta erdi mailako hezkuntza zikloak, etengabeko eta lanerako prestakuntza, zikloetarako sarbide-probaren prestakuntza... eskaintzen ditu Mekak gaur (www.meka-elgoibar.hezkuntza.net), eta hezkuntza zikloen artean goi mailakoak eta erdi mailakoak dauzkagu. Goi mailakoetan:

Metal eraikuntzak, Haur Hezkuntza, Auto-
mozioa eta Administrazio eta Finantzak zikloak dauzkagu, eta erdi mailakoetan: Makinariaren elektronika, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzan aritzeko zikloa, Administrazio Kudeaketa zikloa, Soldadura eta Galdaragintza, Erizain laguntzaile izateko zikloa, eta Ibilgailuen elektromekanika eta Karrozeria zikloak dauzkagu.

Zeintzuk dira Mekaren gaurko erronkak?

Erronka handiak dauzkagu, eta buru-belarri ari gara horretan Meka Lanbide Eskola osatzen dugunok. Enprekin elkarlana bultzatu nahi dugu, metodologia berritzaileak ezarri geletan, ekintzailetasuna sustatu gure ikasleen artean eta gure ikasleak hiru hizkuntzatan hezi.



LANA

ESKAERA

- Matematika, fisika eta kimikako klase partikularak ematen dira DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. ☎ **685 706 001**
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta baita garbiketa lanetarako ere. ☎ **636 517 025**
- Cambridge FCE azterketa prestatzeko ikastaro intentsiboa ematen da uztailean, goizez. Informazio gehiago: fce.uztaila@gmail.com ☎ **673 364 623**
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta berehala hasi naiteke lanean. ☎ **686 077 564**
- Neska eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko zein garbiketa lanetarako. ☎ **632 878 035**
- Neska eskaintzen da gaeuz adinekoak zaintzeko. Asteburuetan lan egiteko ere prest. ☎ **631 124 942**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ **638 338 816**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta portalak garbitzeko. Orduka eta gaeuz ere lan egiteko prest. ☎ **631 343 232**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. ☎ **676 444 813 (Maria)**
- Emakume euskalduna eskaintzen

da haurrak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo zerbitzari lanak egiteko.

- ☎ **639 054 041**
 - Neska eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, esperientziarekin. Ordu-tegi malgua. ☎ **630 410 294**
 - Neska eskaintzen da, pertsona nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. ☎ **606 007 742**
 - Neska eskaintzen da orduka edo interna nagusiak zaintzeko. ☎ **606 641 609**
 - Neska eskaintzen da, esperientziarekin, nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. ☎ **680 808 125**
 - Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edo gaeuz. Erreferentziak onak. ☎ **633 401 678**
 - Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako, zein pertsona nagusiak zaintzeko; orduka, gaeuz edo asteburuetan. ☎ **638 338 816**
 - Neska eskaintzen da gaeuz nagusiak zaintzeko. ☎ **615 219 514**
 - Neska euskalduna eskaintzen da, orduka lan egiteko. Etxeko lanetarako edo zaintza lanetarako. ☎ **619 041 821 / 943 744 033**
 - Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **602 369 696**
- ESKAITZA**
- Asteburu eta jai egunetan Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. 23-35 urte bitartekoa eta euskaraz ondo hitz egitea ezinbestekoa. elgoibarcv@hotmail.com

- Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. **CV bidali Gautxo tabernara.**

ETXEBIZITZAK

- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **616 649 503**
- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **671 289 584**
- Familia batek hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ **631 105 462 / 631 361 762 (Carlos eta Jenny)**
- Apartamentua alokagai Zahara de los Atunesen (Cadiz), hondartzan bertan dago, bi logelakoa, garajearekin. Ekaina, uztaila, iraila eta urrirako, hamabostaldika. ☎ **647 416 206**
- Uztailean 6tik 19ra hiru gelako pisua hartuko genuke alokairuan. Hiru bikote gara. ☎ **605 083 955**
- Hiru logelako pisua hartuko nuke alokairuan, eta ahal dela altzariekin. ☎ **603 237 932**

KINTOAK

- 1973koen kinto bazkaria ekainaren 13an, Txarridunan. 13:00tan luntxa eta 14:30ean bazkaria. 19:00etatik aurrera festa Gabazen. 40 euro sartu Kutxan: 2095 5036 50 9114823858.
- 50 urte betetzen dituzten mendaroaren bazkaria, ekainaren 13an.

12:00etan batuko gara Kilimoi elkartean eta mokadutxo bat jan eta poteo txiki baten ondoren, Landa eretegian bazkalduko dugu. Ondoren, Dja. Izena emateko 85 euro sartu kontu korronte honetan maiatzaren 29rako. KUTXA: 2095 5054 0091 1485 2864.


- 1949an jaiotako bazkaria, ekainaren 13an, Sigman. 12:30ean argazkia elizako arkupean eta gero luntxa Ibai Ondo erretegian. 50 euro sartu behar dira Caixan: 2100 4168 74 2100298970. Azken eguna ekainak 6.

GARAJEAK


- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. Auto batentzako lekua. ☎ **699 812 566**
- Garaje irekia saltzen da ikastolako aldan. 13m2. Merke. ☎ **627 856 989**

BESTELAKOAK

- Goiko Errota elkarte gastronomikoa bazkideak behar ditu. ☎ **679 938 070**
- Duela aste batzuk patinetea ahaztu zitzaigun plazan. Horia da, Flicker markakoa. F3 modeloa. ☎ **627 112 877**
- Urrezko pultsera galdu da ikastolatik Basarterako bidean, Paula izena dauka grabatuta. ☎ **675 705 718**
- San Roke kafetegi kanpoko bankuan bi jertse agertu dira. Kafetegian bertan daude gordeta.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**





Banantzeko prozesu judizialak emango duenaren zain nago, nire senar ohiak helegitea jarri duelako bigarren auzialdean. Momentu honetan bigarren eskuko etxe bat erosi nahi dut. Ondasunak banantzeari uko egiten dio, baina, nire senar ohiak, eta jakin nahiko nuke ea badagoen modurik etxea erosteko, irabazpidezko ondasunetan sartu beharrik gabe.

Irabazpidezko ondasunen likidazioa egin arte edo gutxienez senar-emazteen banantze prozesu hori gauzatu arte, egoera nahikoa konplikatu da, ondorioztatzen delako etxe hori oraindik likidatu gabe dagoen irabazpidezko diru horrekin erosi dela. Horrenbestez, etxe hori irabazpidezko ondasuntzat hartuko litzateke. Aldiz, etxe hori behin banandu ostean erosten baduzu, zeurea izango da soil-soilik. Senar-emazteek elkarrekin bizitzeari uztea harreman horrek kiebira jo duen adierazle garbitzat hartu izan dute epaile batzuek eta irabazpidezko ondasunen sozietate hori desegintzat eman. Halakoetan, momentu horretatik aurrera izaten diren irabaziak hartzaileari berari dagozkio bakarrik, eta ondorioz, erosketa pribatuak egiteko erabili ahal izango luke diru hori. Haus-tura egon dela, baina, epaileak bakarrik ebatzi dezake. Beste aukera bat da dokumentu publiko baten bidez jasotzea etxea erosteko erabili den dirua bati bakarrik dagokiola, baina egia esan, hori hala dela frogatzea oso zaila izaten da.


AHOLKUA: Eska ezazu hitzordua notaritzan, datu guztiak aztertu eta beste aukerarik daukazun ikusteko.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



• Zorionak, **Sare**, gaur 4 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna! Muxu asko familia osoaren partez eta bereziki Oihaneren partez.



• Gure **Marxel** txikixak 4 urte haundi. Zorionak, maittia!



• Zorionak, **Maialen**, astelehenean 6 urte handi bete zenituelako. Etxekoan eta lagunen partez.



• Zorionak, **Garazil** Egundoriontsua pasa dezazula. Muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Noa**, hurrengo astean 3 urte potolo beteko dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **June**, maiatzaren 30ean 7 urte egin zenituelako. Jarraitu hain alaia izaten, maittia. Muxu pila bat.



• Zorionak, **Alex!** Astelehenean primeran ospatuko dugu zure 10. urtebetetzea. Muxu bat Mikel, Lucia eta familia osoaren partez.



• Zorionak, **maittia**, hilaren 28an 4 urte bete zenituelako. Segi horren alaia eta maitagarria izaten. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Haizea eta Maddi**, atzo, ekainak 4, 5 urte bete zenituztelako. Bina patxo handi, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Jon eta Javier**, 3 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bana familiakoan partez.



• **Aitor eta Nerea**, iritsi da zuen txanda! Biharko eguna gozatu eta ospatu, guk ere halaxe egingo dugu-eta. Familiakoan partez, zorionak bihotzez!



• Zorionak, **Arhane**, gaur 7 urte beteko dituzulako.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!



PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **4'50€**

Argazki bikoitza: **7€**

Hirukoitza: **9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak: **15€**

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **3'50€**

Argazki bikoitza: **6€**

Hirukoitza: **8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak: **12€**

Argazkiak eguazten eguerdia
(12:00etarako)

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuak
2.000.000 € Debabarrena hobetzeko

60 proposamen

} Eskualdeko batzarrean erabakiko duzue zeintzuk egingo duten aurrera

ELGOIBAR. **EKAINAK 11**, 18:30ean, Kultur Etxean

Antolatzailea

Zure esku dago!

Gipuzkoa
DEBARRAK





5 barixakua

Bideo forum

21:30 'Y ahora a dónde vamos'

Haizeak antolatuta, Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika

23:00 Metal gaua

Sinuosek antolatuta, Wormed eta Steel Puppets taldeak. Maalako parkean.

6 zapatua

Kirola

10:30 Kirol maratokia

TX4 gimnasioak antolatuta, kirol desberdinen maratokia. Maalan.

Emakumezkoen

lau nazioen eskubaloitxapelketa

17:00 Valentzia - Galizia

19:00 Euskadi - Katalunia

IMHko kiroldegi berrian.

7 domeka

Emakumezkoen

lau nazioen eskubaloitxapelketa

10:30 Hirugarren eta laugarren

postuak

12:30 Finala

IMHko kiroldegi berrian.

8 astelehena

Hitzaldia

18:30 'LOMCE eta Heziberri 2020'

Arno guraso elkarteak antolatuta, Mendaroko udaletxeko pleno aretoan.

9 martitzena

Dantza

20:00 Biraka

Biraka dantza taldearen kurtsu amaierako emanaldia. 10ean eta 11n ere egingo dituzte saioak, ordu berean. Herriko Antzokian.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
5 Yudego 6 Fernandez Goizez: Etxeberria 7 Fernandez 8 Yudego 9 Oruesagasti 10 Barrenetxea 11 Ibañez 12 Etxeberria	Astelehenetik igandera Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

* Larrialdietarako Eibarko ambulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

IKASTOLAREN EGUNA **Ekainak 6, zapatua**

10:00 Kalejira

Kalegoen plazatik Ikastolara, txaranga txikiarekin.

11:00-13:00 Haurrentzako

jolasak

Altxorraren bila, herri kirolak, zaku lasterketak...

11:00-18:30 Bizia delako

Ikastolako gurasoen euskara taldearen ekimen sorpresa.

13:00 Niala magoa

14:00 Flash mob

Biraka dantza taldearekin.

14:00-16:00 Bazkaria

15:45-16:00 Sari banaketa

16:00-16:15 Enkantea

Markel Bergara, Imanol Agirretxe, Eli Pinedo eta Alex Txikonen kamiseta eta S.D. Eibarren baloia.


16:15-16:30 Enkantea

Mausitxako gaztaren pisua asmatzen duenak gazta irabaziko du.

16:15-18:30 DJ


16:30 Mus eta xake

txapelketa



Ludotekako VI. Aste Nagusiko **kartel lehiaketa** martxan dago. Konsultatu oinarriak ludotekan. Sariak daude irabazleentzat!

Udako irteeretan izena emateko azken eguna: ekainaren 12a. Plaza gutxi gelditzen dira!





IRIONDO KIROLAK
San Francisco, 37 - Tel. 943 74 09 58 - GUGOBAI



- 🔴 Pintxoak
- 🔴 Entsaladak
- 🔴 Ogitartekoak
- 🔴 Plater konbinatuak
- 🔴 Razioak

Zatoz gure terrazara!



TANTAKA
Aita agirre, 5
Tel: 943 030 736
TABERNA





13. EDIZIOA IMH SARIAK

Heziketa Zikloen Diploma eta
Sari banaketa ekitaldia
Ekainak 11 - 18:00etan, IMHn



ENPRESA BABESLEAK



ENPRESA KOLABORATZAILEAK

EKIN, ECENARRO, ENGRANAJES GRINDEL, ETXE-TAR, FAGOR AUTOMATION, GURUTZPE, IBARMIA, ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES, PAMPO, JUARISTI, KENCI KENNAMETAL, KONDIA, LAIP, MAZA, RICOH, SAMCIC IBERIA.

SARIAK

IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / DUALEKO IKASLE AIPAGARRIA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA



www.imh.eus - imh@imh.eus - Tel.943744132 - Elgoibar



www.meka-elgoibar.net
Tel: 943 748 019

Eskola Publikoa, kalitatezkoa eta beritzailea

GURE ESKAINTZA:

Erdi mailako zikloak:

- ◆ ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- ◆ MAKINARIAREN ELEKTROMEKANIKA
- ◆ IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
- ◆ MENPEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ◆ SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA

Goi mailako zikloak:

- ◆ ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- ◆ AUTOMOZIOA
- ◆ HAUR-HEZKUNTZA
- ◆ METAL ERAIKUNTZAK

Arratsaldez partzialki ikasteko aukera:

- ◆ GALDARAGINTZA
- ◆ HAUR HEZKUNTZA
- ◆ ERIZAINNTZA

Ingelesean egiteko aukera:

- ◆ AUTOMOZIOA
- ◆ ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- ◆ ERIZAINNTZA





EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN

24. JAIA

ELGOIBARREN

2015eko

EKAINAREN 7an



GUSTATZEN
JATA, JAKU

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



ELGOIBARKO
UDALA

